

Fernanda Morais: «Euskal kulturaren nire interpretazio propioa da hau»

Artista brasildarrak gaur irekiko du erakusketa Irun Factory gunean, eta Lurra taldeak joko du han

Odeirirgoien Alzpitarte Irun

Fernanda Morais brasildarraren *Fabla*je erakusketa irekiko dute gaur Irun Factory gunean. *Fabula* eta *viagem* hitzak elkartuta jarri dio izena erakusketari: «Euskal kulturaren nire interpretazio propioa da», egileak azaldu duenez. «Zerbait deskriptiboa edo jakina baino gehiago, zerbait sortzailea erakutsi nahi izan dut». Bitamine Faktoria Irungo sorkuntza fabrikak hileko hirugarren barikuro antolatzen duen Kasual Friday ekimenaren baitan kokatzen da aurkezpena. 19:00ean hasiko da. Morais bertan izango da bere lanen inguruko azalpenak emateko, Lurra taldeak kontzertua emango du, eta jatekoa ere izango da hurreratzen direnentzat.

Duela urtebete inguru hilabete-ko egonaldia egin zuen Moraisek Euskal Herrian, Bitamine Faktorian «egonaldi artistikoa» egiteko. Zehazki, Irunen eta Hendaian egon zen, baina beste hainbat leku ere bisitatu zituen. «Kultura, jatekoa, euskara hizkuntza, tradizioak, sagardoa... gustatu zitzaizkidan. Batez ere, itsasoaren eta mendiaren arteko nahasketa egin zitzaidan erakargarri». Berak egindako argazkiekin eta bideo grabaketekin hainbat obra jarri ditu Irun Factoryn. Hainbat argazki *monokulo* deitzen zaien aparatu txiki batzuetan jarri ditu:



Fernanda Morais artista, monokuloak eskuetan. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

«Nire egonaldiko bidaiaren eguneroko bisuala da». Ikusleak monokuloek daukaten zulo txotik begiratuta argazkia ikus dezake. Muntaketa egiteko bidaietan topatu zituen objektuetara lotu ditu monokuloak. Batzuk esekigailuetatik daude zintzilik, eta beste batzuk armairu txiki baten gainean daude. Azken horiei aurkitutako objektu txikiak lotu dizkie, horien pisuarekin armairuaren gainaldean pausatuta egon daitezten.

Horietaz gain, beste obra batzuk ere jarri ditu. Obra bat osatu du Billabonako baserri zahar batetik hartutako leiho oholekin. Barruan mosaikoak egin ditu, beste leiho ohol batzuen argazki osatuta. Arrantzaleen sareak ere erabili ditu: «*Cama de Gato* aurreko nire lanean oinarritu naiz hurrerarako. Haurren jolas bat da hori». Hainbat hari esku artean izanda egiten den jolasa da *Cama de Gato*. Pertsona baten eskuen

artean forma batzuk egiten ditu, eta beste pertsona batek hartuta forma berriak egin ditzake.

Badira saregileei buruzko hainbat argazki, baita sare batekin egindako bideo muntaketa ere. Arrantzaleen sarean txoriak proiektatzen dira, eta sarearen gainean hegan dabiltzala dirudi: «Sarearekin jolastu egin dezakezu, baina preso ere gera zaitezke». Etxalarren egiten den sare bidezko paseko usoen ehiza izan da bere inspirazio iturria horretarako.

Bisitariak sarreran tiket sortak aurkituko ditu. Horietan euskarazko kopia zaharren atalak daude inprimatuta, portugesez itzultakoak: «Bisitariantzat sarrerak dira, baina koplak izan dira nire sarrera Euskal Herrirako ere». Izan ere, portugesez itzultako kopia zaharren bilduma bat izan zen euskararekin Moraisek izan zuen lehen kontaktua.

Diziplinartekotasuna sustatu

Bitamine Faktoria hiru artistak osatzen duten taldea da, baita euren tailerra ere. Euren da Kasual Friday egitasmoaren ideia, Helga Massetani partaidea azaldu duenez: «Konzeptu multidiziplinar artistikoa da. Hainbat sorkuntza modu garaikide uztartu nahi ditugu». Urtebete da jendaurreko Kasual Friday-ak antolatzen dituztela. Bitamine Factory espazioa txiki geratu zaie, eta aurrerantzean beste herri batzuetan antolatuko dituzte emanaldiak.

Besteren artean Kortatu eta Sagarro taldeetan aritu zen Inigo Muguruza aurkezpenean izango da. Portugesezko abesti bat eta euskarazko hainbat eskainiko ditu, Lurra taldeko beste kideekin batera.

Gaixotasun kronikoa

Kritika

Lehen parte da interesik handienekoa, botika industria ahal-

dituen istorioetan inplikatzeko zalea. Nolanahi ere, atal horrek

beste sintoma bat. Zoritxarrez, hori guztia bazter geldituko da.